

2024ko deialdia diru laguntzen ekintzaileei laguntzeko ENPRESA-IDEIA bat garatzeko (APEI)

Nori dago zuzenduta:

Ekintzaileak, negozio-ideia bat izanik, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, **arduraldi eskusiboko** erregimenean, Bidasoa biziriken ikuskaritzapean eta tutoretzapean.

Eskakizunak:

- Langabea izatea eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea. (laguntza emateko prozesua hasten den egunean gaurkotua) (**Ondorio horietarako, langabetzat hartuko da lanaldi partzialeko kontratuarekin eta % 30eko edo hortik beherako lanaldiarekin ari denean**)
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza-prozesuan sartuta egotea.
- Enpresa edo negozio berri bat edozein jarduera-arlotan garatzeko ideia bat izatea
- Aurreko urtean alta emanda ez egotea ez Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere
- Enpresa-ideia aztertzeko eta garatzeko zereginetan arduraldi eskusiboan jardutea.
Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 18 egun baino gehiago lan ez egitea edo lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea.)
- Enpresa-ideia sortze eta garatze aldera deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek definitutako aholkularitza emateko eta laguntzeko jarduera guztietara bertaratzea
- Xede horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez izana
- Aurreko deialdietan, enpresa-ideia bat garatzeko edo enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzak)
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea

Informazio xehetua:

[EBAZPENA, 2024ko apirilaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2024ko dirulaguntzen deialdia argitaratzeko dena](#)

Eskabidearekin batera, **ZUZEN SINATURIK** dagoela, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- ⇒ Eskatzailearen NAN/AIZren fotokopia
- ⇒ Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratua
- ⇒ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak
- ⇒ Langabea izatea eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea eta izena **indarrean** emanda egotea,
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza eta/edo tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza eta/edo tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan (Bidasoa bizirik)

ESKAERA-INPRIMAKIA

- https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/entap_2024/procedures/proc_20245211929683/eu_def/adjuntos/ANEXO-II-EUS-EDITABLE.pdf
- [Ekintzaileentzako eskabidea](#) (pdf , 702.71 KB)
- https://www.lanbide.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/entap_2024/weblan00-content/eu/

2024ko deialdia ENPRESA-PROIEKTU berriak abian jartzeko laguntzak (APEA)

Nori dago zuzenduta:

Ekintzaileak, negozio-idea bat izanik, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, **arduraldi eskusiboko** erregimenean, Bidasoa biziriken ikuskaritzapean eta tutoretzapean.

Eskakizunak:

- Langabea izatea eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea. (**Ondorio horietarako, langabetzat hartuko da lanaldi partzialeko kontratuarekin eta % 30eko edo hortik beherako lanaldiarekin ari denean**). **Betekizun hori bete beharko da, baita ere, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emateko unean**
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea
- Bideragarritasun-plan bat izatea enpresa edo negozio berri bat abian jartzeko.
- Aurreko urtean alta emanda ez egotea ez Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, ezta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- Eskusiboki enpresa edo negozioa martxan jartzeko jardueretan aritzea. (**Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 27 egun baino gehiago lan ez egitea edo lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea.**)
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez ere 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita
- Xede horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez izana.
- Aurreko deialdietan, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzak)
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea

Informazio xehetua:

[EBAZPENA, 2024ko apirilaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2024ko dirulauntzen deialdia argitaratzeko dena](#)

Eskabidearekin batera, **ONDO SINATUA**, dagoela, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- ⇒ Eskatzailearen NAN/AIZren fotokopia
- ⇒ Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratua
- ⇒ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak
- ⇒ Negozio-Ideia bideragarritasuna plana
- ⇒ Langabea izatea eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea eta izena **indarrean** emanda egotea,
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza eta/edo tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza eta/edo tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan (Bidasoa bizirik)

ESKAERA-INPRIMAKIA

- https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/entap_2024/procedures/proc_20245211945535/eu_def/adjuntos/ANEXO-II-EUS-EDITABLE.pdf
- [Ekintzaileentzako eskabidea](#) (pdf , 702.71 KB)
- https://www.lanbide.euskadi.eus/dirulauntza/2024/entap_2024/weblan00-content/eu/